

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA ERAIKITZEKO LANAK

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEAREN ERAIKUNTZA AZKENEKO TXANPAN SARTU DA

2010ean irekiko da 17 kilometroko luzera izango duen autobide berria. Donostiako saihebiderearen ordezkotako hautabide izango da, eta egunean 40.000 ibilgailutik gora kenduko dizkio Donostiako saihebideari, batez ere nazioarteko garraio astuna eta Gipuzkoa zeharkatzen duen zirkulazioa.

Donostialdeko "saihebidere" berriak lotuneak izango ditu AP-8 autobidearekin, Erreterian eta Aritzetan, N-I errepidearekin, Lasarte-Orian, eta Urumeako autobidearekin, Astigarragan. Donostialdeko eta Gipuzkoa osoko zirkulazioa berrantolatzeke funtsezko elementua izango da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bidegi foru sozietatearen bidez garatutako eraikuntza lanek 300 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatu dute.

Ondorengo asteetan aurrerapen garrantzitsuak egingo dira obraren funtsezko puntuetan: karga probak egingo dira Lasarte-Oriako eta Urumeako zubibideetan (azkeneko hori Euskadiko luzeena da, kilometro batekoa); Menditxoko tunela zulatuko da (ezkerreko hodia); eta azken hilabete hauetan AP-8 autobidean, Erreterian, dagoen desbideraketa kenduko da, puntu horretan autobidearen eta 2. ingurabidearen arteko lotunea bukatutzat emateko.

Donostiako saihebiderearen hautabide izango den 17 kilometroko autobide berriaren (Donostiako 2. ingurabidea) eraikuntza prozesua zabaldu aurreko azkeneko txanpan sartu da, 2010ean bertan zabaltekeoa baita.

Hemendik hilabete batzuetara, 2. ingurabidea irekitzen denean, "iraultza" bat gertatuko da Donostialdeko bide loturetan, egunean 40.000 ibilgailutik gora kenduko baitizkio Donostiako saihebideari, batez ere garraio astuna eta Gipuzkoa zeharkatzen duen zirkulazioa.

Donostialdeko "saihebidere" berriak lotuneak izango ditu AP-8 autobidearekin, Erreterian eta Aritzetan, N-I errepidearekin, Lasarte-Orian, eta Urumeako autobidearekin, Astigarragan. Donostialdeko eta Gipuzkoa osoko zirkulazioa berrantolatzeke funtsezko elementua izango da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bidegi foru sozietatearen bidez garatutako eraikuntza lanek 300 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatu dute.

Ondorengo asteetan aurrerapen garrantzitsuak egingo dira obraren funtsezko puntuetan: karga probak egingo dira Lasarte-Oriako eta Urumeako zubibideetan (azkeneko hori Euskadiko luzeena da, kilometro batekoa); Menditxoko tunela zulatuko da (ezkerreko hodia); eta azken hilabete hauetan AP-8 autobidean, Erreterian, dagoen desbideraketa kenduko da, puntu horretan autobidearen eta 2. ingurabidearen arteko lotunea bukatutzat emateko.

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEAREN DATUAK

***Errepide mota:** Autobidea

***Luzera:** 17 kilometro (autobide enborra)

***Herriak:** -Errenteria
-Oiartzun
-Astigarraga
-Donostia-San Sebastián
-Hernani
-Lasarte-Oria
-Usurbil.

1)Errenteria – Astigarraga (Urumeako autobiarekiko lotunea)

Luzera: 8,4 kilometro

Lerroak: 3, noranzko bakoitzean (guztira, 6)

2)Astigarraga – Lasarte (N-lekiko lotunea)

Luzera: 4,5 kilometro

Lerroak: 2, noranzko bakoitzean (guztira, 4)

3)Lasarte – Aritzeta (A-8rekiko lotunea)

Luzera: 3,3 kilometro

Lerroak: 2, noranzko bakoitzean (guztira, 4)

**2. eta 3. zatiak batera egiten ari dira.*

***Egiturak:** -Zubibideak (14)

-Tunelak (3)

-Tunel artifizialak (3)

-Gaineko pasabideak (16)

-Azpiko pasabideak (10)

DONOSTIAKO 2. INGURABIDEA

Donostiako bigarren ingurabidea 17 kilometroko autobide zati bat izango da, Donostia hegoaldetik inguratuko duena, Errenterian, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian eta Usurbilen barrena pasatuz. **Donostiako egungo saihebidia arinduko du.**

Donostiako saihebidetan gero eta trafiko handiagoa dago –toki jakin batzuetan egunean 100.000 ibilgailutik gorakoa izatera iritsi da–, eta behar-beharrezkoa bihurtu da Donostiako 2. ingurabidea egitea, **Gipuzkoan pasadizoan dabilen trafikoa hartzeko eta Donostiako sarrera-irteerak arintzeko.**

Proiektu handi horrek aztertzen ari garen bide-zatiko arazoak konponduko ditu. Proiektua bi zatitan banatu da eta zati bakoitzerako eraikuntza proiektu bana egin da.

Lehenengo zatia Aritzetaren eta Urumeako lotunearen artean egingo da, eta bigarrena, berriz, lotune horren eta A-8 autobidearen Errenteriako lotunearen artean. Beste proiektu batean tuneletako instalazioak eta Errenteriako planeamendu berriko hegoaldeko bidea zehaztu dira.

Autobide berriaren trazatua mendebaldea-ekialdea noranzkoaren ia paraleloan doa, Donostia hegoaldetik inguratuz. Bi muturretan A-8 autobidearekin lotzen da eta By-Pass-a egiten duela esan daiteke.. **Halaber, N-I errepidearekin Lasarten eta Urumeako autobiarekin Astigarragan ere lotzen da. Beraz, lau lotune izango ditu Gipuzkoan eraikitzen ari den kapazitate handiko sarearekin.**

Kapazitate handiko bide sare horrek gaur egun Donostia inguruan dugun trafiko handiari erantzun bat emango dio, azpiegitura berrira eramanez eta, ondorioz, hiritik aldenduz soilik pasoa doazen eta hirira bertara sartu beharrik ez duten ibilgailuak, batez ere, salgaien nazioarteko garraioa egiten dutenak.

Guztira 17 kilometro izango ditu, eta orografia zail batetik doa Usurbil, Lasarte, Donostia, Hernani, Astigarraga, Errenteria eta Oiartzundik igaroz.